

Udal talde politikoaren iritzia



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK EZ!

Emakumeen aurkako Nazioarteko Eguna den azaroaren 25era hurbiltzen ari gara aurten ere; egun eta salaketa sozial horiek funtsezkotzat jotzen ditugu Getxon ere. Horrexegatik, hain zuzen ere, Getxoko Udalak, talde politikoek eta emakumeen elkarteek zein herri mugimenduek etengabeko lana gauzatzen dugu Berdintasun Kontseiluaren eremuan; kontseilu horrek, zehazki esateko, pertsona guztien arteko berdintasuna gure herrian bermatzera zuzentzen diren ekintza guztiak biltzen ditu, oinarritzko eskubi-dea baita.

Euzko Alderdi Jeltzalean argi daukagu emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna erronka sozial nagusietako bat dela, Getxon ere bai, eta indarkeria matxista haren adierazpen handiena eta basatiena dela. Ez dira



hitz hutsak, Getxoko bizilagunekin hartu dugun konpromisoa baizik. Hitz horiek aspalditik kohesio sozialaren eremuan eta desberdintasunik eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bidezko gizaritate bat garatzeko asmoz lantzen ari diren ekimenetan islatzen dira.

Guztion (erakundeak, alderdi politikoak, eragile sozialak eta emakumeen mugimenduak) babesak eta baterako lanak emakumeen aurkako indarkeria desagerarazteko borrokaren balio garrantzitsua izaten jarraitzen dute eta jarraituko dute. Eta azaroaren 25eko ekitaldiak, kanpainak, ekimenak, elkarretaratzeak edo adierazpen instituzionala haien isla garrantzitsuen dira.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK EZ!



MEMORIA ETA ERRESPECTUA

Pasa den ostirala Memoriaren Eguna izanda, Getxoko Udalak omenaldia egin zien bizitzeko eskubidearen urraketan biktima izan ziren hiru pertsonari, hau da, 1969tik 1975era bitartean Segurtasun Indarrek hil zituztenei; gainera, horietako bat Getxoko Udaltzaingoko agente batek hil zuen. Osoko bilkuren aretoan, ekitaldi xume baina serio eta oso hunkigarri batean, harrera egin genien Félix Arnaizen eta Alfonso San Sebastiánen senideei. Ezin izan dugu aurkitu hirugarren biktima izan zen Maria Alexandra Lacketten familia. Getxoko Udalak zor bat edo konpondu gabeko arazo bat zeukan pertsona horiekin. Ekitaldiaren bidez, biktima horiek gogora ekarri, senidearen edo lagunaren heriotzaren ondoriozko mina arindu, eta hainbat urtetan jasan duten bakardadea leundu edo arindu nahi genuen. Ekitaldian udalean ordezkariak ditugun talde politiko guztiok egon ginen ordezkaturik, Alderdi Popularra izan ezik.



SANTA ANA ARGIZTATZEA

Auzokideen kexak jaso ditugu gai bati buruz: argi gutxi daude Santa Ana plazan. Auzokoekin bildu ginen, eta arazoaren berri eman ziguten. Ondoren, Getxoko



C's taldeak egoera konpontzeko izaipideak abiarazi ditu. Eta hori da nahi duguna: zuei lagundu. Kexa edo iradokizunik baduzue, jarri gurekin harremanetan honako baliabide hauek: @CsGetxo, herritarra@getxo.eus, 944660291



ALGORTAN DESAGERTU DIREN APARKALEKUAK BERRESKURATZEA



Alkateak Algorta etorbideko saneamendu eta berrurbanizazio obrak egitea erabaki du; aldi berean, biribilguneko obrak gauzatzen ari dira Salsidu aldean. Egiten ari diren lan edo obra horiek, dauden auzoa hankaz gora jartzeaz gain, hogeita hamabost aparkaleku aldi baterako desagertzea ere eragin dute.

PPtik eskatu dugu Getxo Antzokiko aparkalekua premiaz edo modu berezian ireki dadila, aparkalekuen desagertze hori konpentsatzeko helburuarekin. Horrela, hor hutsik dauden 93 aparkalekuak auzokide guztien eskura jartzen dira, eta ez, orain bezala, Musika Eskolako 17 pribilegiatuen eskura bakarrik.



IBARBENGOAREN BESTE EGIA

EAJren "La verdad de Ibarbengoa" testuari erantzuteko, Getxo Bizirik plataforma aipatzen baitu, honako hau adierazten dugu: 1) Gure izena zikintzeko erabiltzen dituzuen trikimailuek ez dute balio: aparkalekuaren aurkako mugimendua HANDIA eta ANITZA da; Getxoko auzo elkarteek, alderdi politikoek eta taldeek osatzen dute. Aparkalekuaren eta haren ondorioen aurkako kontraktotasunak batzen gaitu (ez metro geltokiaren irekierak); 2) Tematu arren, ez da egia: GETXOKO UDAL GOBERNUAK EZ DU GEHIENGOA.

Baina OPOSIZIO OSOAK APARKALEKUAREN AURKAKO jarrera agertu du JENDAUURREAN (EAJ-PNVko eta PSEko 11 zinegotzi; oposizioa: 14). Ondorioa: EAJ tematuta dago obrarekin, "konpromisoa hartu zutelako beren hauteskunde-programan" eta ez udalerraren interes orokorregatik; 3) Esan ohi da egia badela horren berri ematen duenarena, baina gertaerak ez dute gezurrik esaten: Obrarako aurrekusi den eremua Tosuko zelaia da, azpian akui-fero handiak dituena. Eremu horrek ez dauka ingurumenaren gainerako eragi-

naren azterlanik; eta Ibarbengoako geltokiaren eraikitzailea (Jabyer Fernandez) espetxean dago ustelkeriagatik. Aparkalekuaren obrak arduratzen den eraikuntza-enpresa, Florentino Pérezena dena, Leioako Udalaren berankorren zerrendan dago, eta ustelkeria eskandalu batean baino gehiagotan sartuta ere bai; Andra Marin 2 proiektu handi daude noiz gauzatu zain. Horregatik, utziguzue proiektu horren benetako interesez zalantza egiten, eta norberak atera ditzala bere ondorioak. 2007an bezala, denok baditugu gure itzalak.



BADATZ ETXEBIZITZA JARDUNALDIAK!

Etxebizitza Jardunaldiak antolatu ditugu alternatibetan sakontzeko, eta problematika honi aurre egiteko eredu zein politikak ezagutzera emateko. Hona hemen egitaraua: Azaroak 16, Etxebizitza eta gazteak (Txiki Otaegi, 18:00) -Gazte problematika Getxon -Gasteizko Gazte Eman-



tzipazio Sarearen proiektua.

-Durangoko "Zabalduko ditugu" proiektua. Azaroak 17, Etxebizitza Ereduak (Villamonte Kultur Etxea, 18:00)

-Etxebizitza Kolaborati- boak/Cohousing. Cover kooperatiba.

-EHU eta Bilboko Udalaren gazte solidarioen- tzako programa.

-Errekaleor filosofia.

Azaroak 18, Etxebizitza Politikak (Erromoko Nagusien Etxean, 10:00)

-Bartzelonako esperientzia: Gentrifikazioa eta horren aurrean Udalak sustatutako politikak. Ibon Bilbao (Arquitectos de Cabecera) eta Santiago Ibarra, (Conseller de Districte de Ciutat Vella).

-Errenteriako Udalaren esperientzia. Itziar Ostolaza. Etxebizitza eta Gazteria zinegotzia.

-Eusko Legebiltzarreko Etxebizitza legeak ematen dituen aukerak. Mainer Otamendi, EH Bilduko legebiltzarkidea. Erdu!